

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	Arte grafikoetako faseak eta prozesuak (zeharkakoa)	Iraupena	40
		Berariazkoa	
Kodea	UF0241		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Arte grafikoetako prozesuak.	Iraupena	100
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kalitatea prozesu grafikoetan (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa industria grafikoan (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0200_2 PROZESU GRAFIKOAN, SEGURTASUN-, KALITATE- ETA PRODUKTIBITATE-BALDINTZETAN JARDUTEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Prozesu grafikoa osoki eta bere fase guztietan (aurreinprimaketa, inprimaketa, koadernaketa eta transformazioa) aztertzea, estandarizazio-ereduen bidez haien arteko komunikazioa kontuan hartuz.
- EI1.1 Ekoizpen-fasearen arabera, enpresen konfigurazioak deskribatzea eta azaltzea, enpresek berek ekoizpen-prozesuan edo haren azpi-dibisioetan ezarri dituztenak.
- EI1.2 Produktu grafiko batetik abiatuta, ekoizpen-ingurune hipotetiko bateko zereginen edo eragiketen sekuentzia deskribatzea lan-fluxuen bidez.
- EI1.3 Produktu jakin batetik abiatuta, hura egitean burutu diren aurreinprimaketa-faseak erlazionatzea eta sekuentziatzea:
- Testua: gorputza, familia, estiloa, paragrafoa, lerroarte.
 - Bilbeak: lineatura, puntuaren forma eta angeluazioa.
 - Koloreen bereizketa.
 - Erabilitako trazadura- eta orrialdekatze-sistemak.
- EI1.4 Produktu jakin batetik abiatuta, erabilitako inprimaketa-sistemaren ezaugarriak deskribatzea eta bereiztea, hauen arabera:
- Erabilitako euskarri-mota.
 - Tintak: motak eta geruzak.
 - Bilbadura.
 - Karaktereen profila.
 - Euskarriaren gaineko aztarna edo erliebea.
 - Inprimaketa-akatsak.
 - Makinetatik zenbat aldiz pasatu den.
- EI1.5 Aurreinprimaketa-, inprimaketa-, koadernaketa- eta transformazio-sistemak aztertzea, haien fase nagusiak deskribatuz eta makinekin, ekipoekin, lehengaiekin eta produktuekin erlazionatuz.
- EI1.6 Inprimaketa-sistema esanguratsuenak deskribatzea.
- A2: Estandarizazio- eta komunikazio-ereduak aztertzea lan-fluxuen bidez.
- EI2.1 Prozesu grafikoaren segimendua lan-fluxuen bidez aztertzea, plangintza, automatizazioa, prozedurak eta ekoizpenaren inguruneari eragiten dioten beste faktore batzuk errazteko.
- EI2.2 Lan-faseetan lortzen den estandarizazioaren eta komunikazioaren bidez, prozesuaren azken emaitza eraginkorrago izatea lortzen den aztertzea.
- EI2.3 Prozesu grafikoaren faseak deskribatzea, haren elementuen zehaztapenak aztertuz, eta elementu horietako bakoitzaren erabilera eta sekuentzialitatea aplikatuz.
- EI2.4 Aurreinprimaketarako hautatutako parametroen eta elementuen egiaztapena azaltzea, zehaztapen teknikoei jarraikiz.
- EI2.5 Inprimaketa-sistema erabilitako euskarriarekin eta lortu nahi den produktuarekin bat datorren aztertzea.
- EI2.6 Akabera erabilitako euskarrien, jarraitutako prozesuaren eta erabilera-beharren arabera aplikatzen den aztertzea, zehaztapen teknikoei jarraikiz.
- EI2.7 Kasu praktiko batean, hautemandako anomaliak deskribatzea, eta horiek kontuan hartzea gero beharrezko neurri prebentibo eta zuzentzaileak hartzeko.

EI2.8 Prozesu grafikoa aztertzea, fase guztietan segurtasun-, higiene- eta ingurumen-araudia kontuan hartu eta aplikatzen dela egiaztatuz.

A3: Produktu grafikoak beren osakeraren eta ezaugarri funtzionalen arabera sailkatzea: paper-gauzak, karpeta-gauzak, estutxe-gauzak, argitalpena eta publizitatea.

EI3.1 Produktu grafikoaren ezaugarriak azaltzea.

EI3.2 Produktu grafikoaren egitura-ezaugarriak aztertzea.

EI3.3 Produktu grafikoaren lagin batzuetatik abiatuta:

Produktu grafikoaren ahalmen komunikatiboa eta funtzionala balioztatzea.

Haien osaketa fisiko-kimikoa aztertzea eta haien ahalmen funtzionala identifikatzea.

EI3.4 Diseinuaren ikuspuntutik, produktu grafiko jakin baten ezaugarriak aztertzea: Formatuak eta neurriak. Tipologia.

- Koloreak. Euskarriak. Koadernaketa eta akabera.

Edukiak

1. Prozesu grafikoak: produktuak eta sistemak

- o Produktu grafikoaren motak.
- o Enpresa-motak: antolaketa eta egitura.
- o Estandarizazio- eta komunikazio-ereduak. Lan-fluxuak.
- o Sarrera-periferikoak, irteera-periferikoak, berariazko softwarea eta hardwarea, prozesadoreak eta proba-sistemak.

2. Arte grafikoetako ekoizpen-prozesuak

- o Aurreinprimaketa-prozesuak.
- o Original-motak. Irudi sorra eta inprimatzeko formaren elaborazio-prozesuak.
- o Trazadura eta muntaia. Muntaiaren elementuak. Berariazko softwarea.
- o Bilbe-motak. Testuen eta irudien tratamenduak.
- o Jatorrizko-motak.
- o Sarrera-periferikoak, irteera-periferikoak, berariazko softwarea eta hardwarea, prozesadoreak eta proba-sistemak.
- o Trazadura eta muntaia. Muntaiaren elementuak. Berariazko softwarea.
- o Inprimatzeko forma.
- o Inprimaketa-prozesuak:
 - Offset bidezko sistemak, flexografia, serigrafia, sakongrabatua, tanpografia, digitala.
 - Printzipioak, analisi konparatiboa eta erabilera-irizpideak.
 - Ekipoak, prestazioak, hainbat sistemaren alderaketa.
 - Inprimaketa-euskarriak.
 - Elementu bistaratzaila motak, inprimaketa-motaren arabera.
- o Koadernaketa- eta transformazio-prozesuak:
 - Koadernaketa- eta transformazio-motak: eskuzkoak eta mekanikoak.
 - Transformatuen prestazioak: kalitatea eta babesa.
 - Lineako edo lineaz kanpoko transformazio-ekipoak.
- o Transformatuen ezaugarriak: aplikagarritasuna eta azken helburua.
- o Euskarrien manipulazioak, material-motaren arabera.
- o Koadernaketako eta transformazioko kontrol-motak eta ezaugarri aldakorrak.

3. Akabera-produktuak

- o Ezaugarriak eta erabilerak.
- o Akaberen xede-merkatua.

4. Sektore grafikoko jarduerak eta produktuak

- o Paperezko, kartoizko eta bestelako euskarri grafikozko ontziak eta bilgarriak.
- o Publizitate eta komunikazio grafikoak.
- o Liburuen, egunkarien, aldizkarien eta bestelakoen argitalpena.
- o Etxean eta osasun-arloan erabiltzeko paperezko eta kartoizko artikulak.
- o Paper-gauza komertzialak eta enpresakoak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.